

Urtarrilaren 6an **JAUNAREN AGERKUNDEA**

Agurra

Herri guztien argia, edertasuna eta salbamena den Jesus Jaunaren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Agerkunde egun honetan, ikusten dugu, Mesiasen salbamena Israel herria gainditu eta mundu osora heltzen dela, denentzat argi izateko. Argi horren arabera bizi nahi dugu senidearen bidera ateraz. Horixe izan daiteke geu ere Jesusentzat dohain preziatu, ukendu gozo eta usain atsegin izateko era bikaina.

Damu-otoitza

Senideok: Bihotz garbi eta apalekoek bakarrik jaso dezakete Eguberritan ospatzen dugun Jainko gizon eginaren misterioa eta berri ona. Aitor ditzagun geure bekatuak, eskuzabal eskaintzen zaigun salbamena onartzeko gai izan gaitezten.

—Jesus Jauna, diren guztiei izatea eman diezun / Aitarene**beti**ereko
Hitza : erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, mundu honetara etorri / eta mundu honek onartu ez zaituen **egi**azko Argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizon eginik / gure artean bizilekua jarri duzun Jain**ko**aren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Aintza

Betleemgo herrian hasitako poza mundu osoari agertzen zaio gaur. Jaunaren Agerkundera ospatzean kanta dezagun Aintza Zeruetan.

Otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Argitu, Jauna, gure bihotza
zeure handitasunaren argi distiratsuz,
mundu honetako ilunpetan zehar onik igarotzeko
eta betiko argiaren erreinura iristeko gai izan gaitezen.
Zure Seme Jesu kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

(Eguneko Meza)

Oi Jainko, egun honetan agertu zenien, izarra gidari zela,
zeure Seme bakarra jentil-herriei;
izan zaitetz gurekin onbera
eta eraman gaitzazu sinesmenez ezagutzen zaitugunok
zeure aintzaren ederra bete-betea gozatzerara.
Zure Seme Jesu kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Poesiaz eta hitz ederrez, Jerusalem berria nolakoa izango den agertzen digu Isaiasen irakurgaiak. Jerusalem berri hori gizadi osora zabaltzen da: Jaunaren argitan iluntasunaren kateak hautsirik berritua izango baita dena eta askatasunez beteak gizon-emakume guztiak.

Lehenengo irakurgaia (*Is* 60, 1-6)

Isaias profetaren liburutik

Jaiki zaitetz, argitu, Jerusalem, badator zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, lainoak estalirik dauka lurra, eta ilunpeak inguraturik dauzka herriak. Zure gainean, ordea, Jauna jaikiko da, eta

Haren aintza agertuko zure gainean. Zure argitara etorriko dira herriak, zure egusentira erregeak. Jaso itzazu begiak zeure inguruan, eta ikus: guzti horiek elkartu dira eta zuregana datoz; zure semeak urrutitik datoz, besoetan dakartza zure alabak. Hori ikustean, gainezka poztuko zara; harrituko zaizu bihotza eta zabalduko, itsasoko aberastasunak zuregana etorriko baitira, eta atzerrietako ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intzentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotela.

Erantzun-salmoa (*Sal* 71, 1-2. 7-8. 10-11. 12-13)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -
 a - gan - di - ko ga - rai - pe - na.

Emaiozu, Jainko, zure auzia erregeari,
 zure zuzentasuna erregearen semeari.
 Zaindu beza zure herria zuzentasunez,
 eta zure gizagaixoak zuzenbidez. R/.

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,
 bakea ugari ilargia itzali artean.
 Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,
 Ibaitek lehor mugaraino. R/.

Tarsisko eta uharteetako erregeek ' ekarriko dizkiote esku-irakatsiak,
 Arabiako eta Sabako erregeek emariak.
 Errege guztiak dute ahuspez agurtuko,
 atzerri guztiak zerbitzatuko. R/.



Onik aterako baitu, oihuka ari den jende xehea,
 eta laguntzailerik ez duen dohakabea.
 Apalarentzat eta behartsuarentzat izango du errukia,
 salbatuko du behartsuen bizia. R/.

Bigarren irakurgaia (Ef 3, 2-3a. 5-6)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Senideok: Entzunik duzue, noski, Jainkoaren grazia zuen artean zabaltzeko eginkizuna eman zaidala. Goi agerpenez ezagutarazi baitzait niri Kristoren misterioa: Lehengo denboretan gizakiei jakin erazi ez zitzaien misterioa, orain Espirituaren bitartez Haren apostolu santuei eta profetei agertua izan zaien bezala: Jesu Kristorengan ondare beraren kide direla, alegia, atzerritarrak ere, berri onaren bidez: gorputz beraren atal eta agintzari beraren oinordekide.

Aleluia (Mt 2, 2)



Haren izarra ikusi dugu sortaldean,
 eta hemen gatoz Jauna gurtzera. R/.

Ebanjelioa (Mt 2, 1-12)

Ebanjelio ondoren: 2021. urteko ospakizunen berri ematea

Ebanjelioaren ondoren, eman daiteke 2021. urtean zehar izango diren liturgi ospakizunen berri, Meza-liburuaren 1304. orrialdean agertzen den moduan.

Homiliarako argibideak

Beste bide batetik erretiratu ziren beren herrialdera

Jarrai dezagun gertutik magoak Betleemera iristearen kontakizun ebanjelikoa, bertan gure bizitzarako adierazpen praktikoren bat aurkitzeko. Narrazio horretan, elementu historikoarekin elementu teologikoa eta sinbolikoa nahasten dira. Bestela esanda, ebanjelaria ez da saiatu «gertakariak» soilik aipatzen, baizik eta «egin beharreko» gauzak ere irakatsi ditu, jarraitu beharreko ereduak adierazi ditu edo saihestu beharrekoak agerian jarri. Biblia osoa bezala, orri hau ere «gure hezkuntzarako» idatzita dago.

Kontakizunean argi eta garbi agertzen dira Jesusen jaiotzaren aurrean hiru erreakzio desberdin: magoena, Herodesena eta apaizena. Has gaitezen eredu negatiboekin, sahiestu beharrekoekin. Lehenik eta behin, Herodes: gertaeraren berri jakin bezain laster «aztoratu egiten da», batzarrera deitu ditu apaizak eta idazlariak, baina ez egia jakiteko, baizik eta iruzur bat egiteko. Jainkoaren eta bere borondatearen artean, berea aukeratuko du, noski. Bere interesa besterik ez du ikusten, eta egoera hori asaldatzea mehatxatzen duen edozer aldatu nahi du. Segur aski, bere eginbeharra betetzen duela ere pentsatuko du, bere erreinua, leinua, nazioaren ongia defendatuz. Era berean, errugabeen hilketak agintzeak, historiako beste diktadore askori bezala, denon ona helburu zuen neurritzat hartuko zuen, moralki justifikatua. Ikuspuntu horretatik, gaur egun ere Herodes askorekin beteta dago mundua.

Apaizen eta idazlarien jarrerara pasatuko gara. Herodesek eta Magoek Mesias non jaioko zen jakiteko galdetuta, erantzun zehatza ematen dute. Badakite non jaio den Mesias; besteei ere esateko gai dira, baina haiek ez dira mugitzen. Ez dira Betleemera korrika joaten, Mesias etortzeko zain zeuden pertsonengandik espero zitekeen bezala, baizik eta Jerusalem eroso geratzen dira. «Joan –esaten

dute-, eta gero jakinarazi...». Errepidearen seinaleek bezala jokaten dute: jarraitu beharreko bidea adierazten dute, baina geldirik daude bidearen alboetan. Gure artean ere zabaldutako jarrera sinbolizatzen digu. Ondo dakigu zer esan nahi duen Jesusi jarraitzeak: «Haren atzetik joateak», eta, behar izanez gero, besteei ere azaltzen dakigu, baina hura bukaeraraino praktikan jartzearen balioa eta erradikaltasuna falta zaigu. Bataiatu oro «Kristoren lekukoa» bada, orduan apaiz guztien eta idazlarien jarrerak guztiei pentsarazi behar digu. Haiek bazekiten Jesus Betleemen zegoela, «Judu-herrixka txikienean»; guk badakigu Jesus pobreen artean dagoela gaur egun, pobreen artean, apalen artean, sufritzen dutenen artean...

Eta goazen azkenean jai honetako protagonistekin, Magoekin. Haiek ez dute hitzekin irakasten, egintzekin baizik; ez dira mintzo esaten dutenarekin, egiten dutenarekin baizik. Ez zuten zalantzarik izan, bidean jarri ziren; beren ingurumenaren segurtasuna utzi zuten, jende ezagun batekin ibiltzeari utzi zioten. Bihotzari jarraitu zioten, zalantzarik gabe. Arriskuak banan-banan kalkulatu izan balituzte, hasieran sentitutako deia eta bultzada hoztuko zitzaien, eta azaleko gauzetan galduko ziren.

Azken adierazpen ederra Magoen bidez irisi zaigu. «Herodesengana ez itzultzeko agindua ametsetan harturik, beste bide batetik erretiratu ziren beren herrialdera». Kristo aurkitu dutenean, ezin da bide beretik itzuli. Bizitza aldatzeak, bidea aldatzen du. Kristorekiko topaketak mugarri bat zehaztu behar du, ohitura-aldaketa bat.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jainkoari, egun honetan agertu baitie nazio guztiei Bere indarra, herri guztiei salbamena eta guri Bere aintzaren argi distiratsua:

Erantzuna: **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



E-ra kuts gu ri, Jau- na, — zu - re bi-hotz o - na.

- Elizaren alde, Kristorengandik datorren argiarekin gizaki guztiak ilunaldietatik aska ditzan, guztiak gogoberotuz Ebanjelioaren indarra gailendu dadin munduko ezin guztien artean.
- Herrialde ezberdinetan jaio berriak diren kristau-elkarteen alde, bere gaztetasuna eta sendotasuna indar-emaile gerta dadin Eliza osoarentzat.
- Ebanjelioaren argia ezagutu ez duten herrien alde, eta baita Kristo ezagutu arren Bere bidetik aldendu diren guztien alde; denak iritsi daitezten Kristo Jauna dela aitortzera eta egiazko Jainko bezala gurtzera.
- Kristoren benetako argia ezagutu dugunok, egiazko fedean sendoturik gero eta leialago bizi gaitezen Ebanjelioko irakaspenetan.

Entzun gure otoitzak, Jainko ahalguztidun eta betierekoa, eta egizu zure Semea ezagutu eta Herri guztien Errege eta Jaun gurtu dugunok, argiaren seme-alaba bezala bizirik Kristoren distira helaraz dezagula gizarteko eta munduko bazter guztietara. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Magoen egun honetan, katekista guztien eguna ere bada. Gure parroketan beraiek dira Kristo “agertzen” dutenak, ematen duten heziketaren eta testigantzaren bidez. Une honetan, eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari katekista guztiengatik.

Prefazioa: Jaunaren Agerkunderako Prefazioa. *(Meza-liburua: 476. or.)*

Jaunartze-ondorengo otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

**Janari santu honekin biziberriturik,
otoitz egiten dizugu, Jaun errukitsua,
zure zuzentasun-izarrak argitu ditzala beti gure gogo-bihotzak
eta Zu aitortzea izan dadila gure oparia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

(Eguneko Meza)

**Jauna, izan dezagula lagun zure argia nonahi eta beti,
ospatu dugun misterio hau fede garbiz sakon dezagun
eta maitasun gartsuz onartu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Ilunpetatik bere argi miragarrira deitu zaituzten Jainkoak
isur dezala zuen gainera bere bedeinkapena
eta sendo zaitzatela sinesmenean,
itxaropenean eta goi-maitasunean.** R/. Amen.

**Gaurko egunez munduari
ilunpeetan argi distiratsu agertu zitzaion Kristok
egin zaitzatela bere jarraitzaile
eta zuen anai-arrebentzat argi.** R/. Amen.

**Magoek, izarra gidari, Kristoren bila ibili ondoren,
poz handiz aurkitu zuten bezala,
eman diezazuela zuei ere Jainkoak,
mundu honetako ibilaldiaren ondoren,
argitik argi den Kristogana iristea. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.